

**INGURUMEN- EDO GIZARTE-EZAUGARRIAK SUSTATZEN DITUZTEN PRODUKTUEI
BURUZKO INFORMAZIOA (SFDR-REN 8. ARTIKULUA)**

LABORAL KUTXA AKTIBO EKI IF

ISINa: ES0183101007

LEI kodea: 5493001YZQGS3ET3RZ39

a) LABURPENA

Funtsak ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak sustatuko ditu; izan ere, IGG alderdiak hartzen ditu aintzat, baloreak aztertzean eta zorroa eratzean. Funtsaren ondarearen % 60 gutxienez alderdi horiek sustatzera bideratuko da.

Zehazki, eskusio-estrategia bat erabiltzen du funtsak; horren arabera, baztertu egiten ditu armamentuaren, tabakoaren, jokoaren, helduentzako entretenimenduaren edo giza klonazioaren sektoreetako enpresak. Irizpide horiek funtseko inbertsio guztiei ezarriko zaizkie.

Caja Laboral Gestión SGIIC SAK barne-metodologia bat garatu du IGG rating bat egiteko, kanpoko informazio-hornitzaileen datuetan oinarrituta. Horren arabera, *best-in-class* politika ezarriko da; hau da, balioztapen positiboa emango zaie, sektorean jasangarritasun-puntuaziorik handienak dituzten jaulkitzaileei.

Gainera, EBren 2019/2088 Erregelamenduaren 2.17 artikulua araberak, funtsak inbertsio jasangarrietara bideratuko ditu inbertsioen % 40, gutxienez, eta kalte nabarmenik ez egiteko printzipioa (DNSH) eta gobernantza onerako jardunbideak beteko dituzte inbertsiook.

Dena den, funtsaren inbertsio jasangarriek ez dute laguntzen 2020/852 (EB) Erregelamenduan zehaztutako ingurumen-helburuetan (bereziki, klima-aldaketa arintzeko edo klima-aldaketara egokitzeko helburuetan), eta funtsak ez du inbertitzen Erregelamendu horren arabera taxonomikoak diren jardueretan.

Inbertsio jasangarriek ingurumenarekiko edo gizartearekiko jasangarriak diren inbertsio-helburuei ez dietela kalte nabarmenik eragiten egiaztatzeke, finantza-produktuak jarraipena egiten die 2022/1288 (EB) Erregelamendu Delekatuko erregulazio-arau teknikoan (RTSen) I. Eranskineko jasangarritasunaren arloko Intzidentzia Kaltegarri Nagusien adierazlerik behinenei. Osagarri gisa, neurtutako adierazle bakoitzak zorroan duen estaldura-portzentajearen jarraipena ere egingo da.

Caja Laboral Gestión SGIIC SAK partaidetza-prozesuak ere egiten ditu, identifikatutako ingurumen- eta gizarte-arriskuen estaldura bermatzeko, IGG irizpideak zabaltzeko eta nazioarteko arau edo jokabide-kodeei atxikitzeke, besteak beste, inplikazio-politikari jarraituz.

Ez da erreferentziazko indizerik hautatu sustatzen diren ingurumen- eta gizarte-alderdiak lortzeko.

b) INBERTSIO JASANGARRIKO HELBURURIK GABE

Finantza-produktu honek ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu, baina inbertsio jasangarria egitea ez du helburu. Dena den, ondarearen % 40, gutxienez, inbertsio jasangarrietara bideratuko du.

Funtsaren inbertsio jasagarriek ingurumen- eta gizarte-helburu hauek lortu nahi dituzte, besteak beste: berotegi-efektuko gasen isurtzeak gutxitzea, energia-efizientzia lortzea, baliabideak eraginkortasunez kudeatzea eta gizarte osoaren gizarte-ongizatea hobetzea.

Produktuaren inbertsio jasagarri batek ere ez dio kalte nabarmenik eragingo jasagarria den inongo inbertsio-helbururi. Printzipio hori betetzen dela monitorizatzeko eta intzidentzia kaltegarriek finantza-produktuaren jasagarritasun-faktoreetan duten eragina ebaluatzeko, jasagarritasun-faktoreen gaineko Intzidentzia Kaltegarri Nagusien (IKNen) jarraipena egingo da. Horretarako, funtsak IKNen jarraipena egingo du 2022/1288 (EB) Erregelamendu Delegatuko erregulazio-arau teknikoen (RTSen) I. Eranskineko adierazleen bidez.

Osagarri gisa, neurtutako adierazle bakoitzerako informazioaren estaldura-ehunekoaren bilakaera monitorizatuko da. IGG datuen hornitzaileek enpresetatik bil dezaketen informazioaren kantitatea eta kalitatea adierazten ditu ehuneko horrek. IKNak urtero neurtuko dira. Neurketaren emaitza finantza-produktuaren urteko txostenean jasoko da, Kudeaketa Txostenaren barruan.

Funtsak kontuan hartuko du bere inbertsioak Multinazionalerako ELGAREN Gidalerroekin edo Nazio Batuen Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidariekin bat etortzen direla. Horretarako, IGG datuen hornitzaileak emandako adierazleak erabiliko ditu funtsak.

IGG datuen hornitzaileak emandako informazioa osatu egingo da partaidetzapeko enprekin elkarrizketa aktiboa izanez, epe luzeko inplikazio-politikari jarraituz.

c) FINANTZA-PRODUKTUAREN INGURUMEN- EDO GIZARTE-EZAUGARRIAK

Funtsak ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak sustatuko ditu; izan ere, IGG alderdiak hartzen ditu aintzat baloreak aztertzean eta zorroa eratzean. Horretarako, irizpide hauek erabiliko ditu nagusiki: eskusioak (ez du zenbait sektoretan inbertitzen, hala nola armamentuan, tabakoan, jokoan...) eta balioztatzeak (klima-aldaketaren aurkako borroka, giza eskubideen babesa eta gobernantza korporatibo ona duten jaulkitzaileak).

Arriskuak murrizteko politikak barne hartzen dituzten estrategiak darabiltzaten erakundeak bilatuko ditu funtsak inbertsioak egiteko; hauek dira estrategiak:

- Ingurumenekoak: CO₂-aren isurtzeak murriztea, energia-efizientzia, baliabideen kudeaketa eraginkorra eta biodibertsitatea babestea.
- Gizartekoak: giza eskubideak babestea.
- Gobernantza korporatiboa: enpresetako kudeaketa-organoek politika egokietan parte har dezaten sustatzea, hala nola akziodunen eskubideak errespetatzen dituzten, indarrean dagoen araudia betetzen duten, ustelkeria-jarduerak saihesten dituzten eta zerga-arloko jardunbide egokiak sustatzen dituzten politiketan.

d) INBERTSIO-ESTRATEGIA

Zuzeneko nahiz zeharkako zorroan, funtsaren jasagarritasun-asmoak hartuko dira kontuan inbertsio-unibertsoa zehazteko, bi irizpide-motaren arabera:

- Irizpide negatiboak. Eskusio-politika bat erabiliko da, jarduera nagusia sektore hauetan duten jaulkitzaileetan inbertitzea saihesteko: armamentua, tabakoa, jokoak, helduen

entretenimendua eta giza klonazioa.

- Balioztapen-irizpideak. *Best-in-class* politika ezarriko da; hau da, balioztapen positiboa emango zaie jasangarritasun-puntuaziorik handienak dituzten jaulkitzaileei.

Zeharkako inbertsioari dagokionez, funtsaren jasangarritasun-asmoak betetzen dituzten IKEak hautatuko ditu sozietate gestoreak. Ahal dela, 2019/2088 (EB) Erregelamenduan jasangarritzat sailkatutako IKE-etan inbertituko du: ingurumen- nahiz gizarte-ezaugarriak —Erregelamendu horren 8. artikuluan sailkatuak— sustatzen dituzten IKE-etan, edo helburutzat inbertsio jasangarriak —Erregelamendu horren 9. artikuluan sailkatuak— dituzten IKE-etan.

Esklusio- zein balioztapen-irizpideak funtsaren zorro osoari (zuzenekoari eta zeharkakoari) aplikatuko zaizkio; zor publikoa izango da salbuespena, horri IGG irizpide hauek ezarriko baitzaizkio:

Zor publikoan egindako inbertsioa (zuzenekoa eta zeharkakoa) demokrazia-indizearen arabera demokraziatzat hartzen diren herrialdeetako gobernuetan egingo da soilik, baldin eta Social Progress Index eta SDG Dashboard indizeen arteko batez besteko kalifikazioa 70 baino handiagoa bada (bi indizeen puntuazio-maila 0 eta 100 artekoa da).

Gobernantza onaren nazioarteko printzipioak betetzen dituzten enpresetan inbertituko da. Informazio hori IGG informazioaren kanpoko hornitzaileetatik lortuko da, bai eta partaidetzapeko enpresekin gauzatutako elkarrizketa aktiboaren bidez ere.

Inbertsio kolektiboko erakundeetako inbertsioen kasuan, Caja Laboral Gestión SGIIC SAK IKE horien sozietate gestoreen esku utziko du jardunbide egokiak aztertzeke zeregina.

e) INBERTSIOEN PROPORZIOA

Ondarearen % 60, gutxienez, ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen dituzten inbertsioetara bideratzea da funtsaren konpromisoa. Gainera, ondarearen % 40, gutxienez, inbertsio jasangarrietara bideratuko du —2020/852 (EB) Erregelamenduaren 2.17 artikulua arabera—. Produktuak ez du zertan Europako taxonomiarekin bat datorren gutxieneko inbertsiorik egin behar. Funtsaren inbertsio jasangarriak ondoren adierazten diren aktiboetan egingo dira.

- Zuzeneko inbertsioa: errenta finko publikoko eta/edo pribatuko jaulkipenetan inbertituko da, bonu jasangarri, berde edo sozialtzat edo jasangarritasunari lotutako bonutzat —*sustainability-linked bonds*— kalifikatuta badaude; zor publikoaren kasuan, herrialde jaulkitzaileek demokraziak izan behar dute, *The Economist* egunkariaren demokrazia-indizearen arabera.
 - Bonu jasangarriak: ingurumenerako jasangarriak diren proiektuetan erabiltzen dituzte funtsak, eta jarduera berdeak eta sozialak konbinatzen dituzten proiektuak hauta daitezke.
 - Bonu berdeak: klima-aldaketa arintzea nahiz klima-aldaketara egokitzea edo ingurumen-jasangarritasunaren alorreko beste helburu batzuk sustatzen dituzten proiektu edo jarduera berdeetan erabiltzen dituzte funtsak.
 - Bonu sozialak: behartsuak diren, diru-sarrera txikiak dituzten eta baztertuta edo desabantailan dauden biztanleentzat gizarte-ongizatea eta inpaktu sozial positiboa zuzenean sustatzen dituzten proiektuetan erabiltzen dituzte funtsak.

- Jasangarritasunari lotutako bonuak (*sustainability-linked bonds*): finantza-eta/edo egitura-ezaugarriak alda dakizkieke, jaulkitzaileak alde zurririk zehaztutako jasangarritasuneko edo IGGko helburuak lortzen dituen edo ez kontuan hartuta.
- Zeharkako inbertsioa: SFDR Erregelamenduaren 9. artikuluan sailkatutako inbertsio jasangarriak helburu dituzten IKE-etan inbertituko da, bai eta SFDR Erregelamenduaren 8. artikuluekin bat ingurumen- eta/edo gizarte-ezaugarriak sustatzen dituzten IKE-etan ere, horien inbertsio jasangarriaren ehunekoaren arabera.

f) INGURUMEN- EDO GIZARTE-EZAUGARRIEN JARRAIPENA

Funtsak sustatzen dituen IGG ezaugarriak neurtzeko, monitorizatzeko eta lortzen direla ziurtatzeko, jasangarritasunari eta IGGei lotutako zenbait metrika hartzen dira kontuan:

- Zorroan eskusio-irizpideak betetzen dituen ehunekoa.
- Jaulkitzaile korporatiboen kasuan:
 - Zorroaren batez besteko IGG ratinga 40/100 baino handiagoa izatea. Gutxienez 20/100eko IGG ratinga izan behar dute enpresek funtsaren inbertsio-unibertsoan sartzeko.
 - Zorroak % 20 inbertitzea, asko jota, zehaztutako atalasetik (20/100ekotik) beherako IGG ratinga duten baloreetan. Ehuneko hori kalkulatzeko, zorroan IGG ratinga duten baloreak hartzen dira aintzat.
- Jasangarritasunari buruzko informazioa duten aktiboak zorroaren % 80 izango dira gutxienez, zuzeneko inbertsio-aktiboak (akzioak, errenta finko pribatua eta zor publikoa) eta IKEak barne hartuta.

Adierazle horiek IGG datuen kanpoko hornitzaileetatik lortzen dira.

g) METODOAK

Sozietate gestoreak aurreko atalean azaldutako adierazleak erabiliko ditu sustatutako ingurumen- eta gizarte-ezaugarrien betetze-maila neurtzeko. Arreta egokiko prozesu baten bidez egingo du hori, IGG ratingak erabiliz eta IKNak neurtuz.

Caja Laboral Gestión SGIIC SAK barne-metodologia bat garatu du IGG rating bat egiteko, kanpoko informazio-hornitzaileen datuetan oinarrituta. Rating hori inbertsio-erabakiak hartzeko erabiltzen da zuzeneko inbertsioaren kasuan (akzioak eta errenta finko korporatiboa).

IKE-en bidezko inbertsioaren kasuan, sozietate gestorearen integrazio-prozeduran eskuragarri dagoen informazio-txantiloien bidez jasotako informazioa erabiliko da.

Funtsaren inbertsio-unibertsoan sartzeko, baldintza hauek bete behar ditu aktiboak:

- Errenta Aldakorra (akzioak) eta Errenta Finkoa (bonu korporatiboa), 100etik 20ko gutxienerako ratingarekin aktibo bakoitzeko.
- Zor publikoa, aktibo bakoitzeko gutxienerako rating hauekin:
 - 100etik 70eko gutxienerako kalifikazio bateratua (% 50 Social Progress Index Score + % 50 SDGs Dash Board)

- 10etik 6ko demokrazia-indizea, gutxienez
- IKEak: Integrazio-prozesua betetzen dela egiaztatzea, integrazio-politikan eta barneko txantiloian jasotako informazioa kontuan hartuta.

Gestoreak 100etik 20 baino IGG rating txikiagoa duen aktibo batean inbertitu nahi badu, beharrezkoa izango da Inbertsio Batzordeak inbertsioa ex ante onartzea. Batzorde hori astero biltzen da, eta, bileretan, inbertsio-taldeak eta Arriskuen Gestio eta Araudia Betearazteko Areako ordezkari batek hartzen dute parte. Batzordearen onespena aktan jasoko da, hartutako erabakiaren trazabilitatea egon dadin.

Arrisku nabarmena duten aktiboetako inbertsioaren diskrezionalitatea kontrolatzeko helburuarekin, muga hauek ezarri dira:

- Zorroak % 20 inbertitzea, asko jota, zehaztutako atalasetik beherako IGG ratinga duten baloreetan. Ehuneko hori kalkulatzeko, zorroan IGG ratinga duten baloreak hartzen dira aintzat.
- IGG ratingari lotutako aktiboak dituen zorroaren gutxieneko batez besteko ratinga: 100etik 40koa.

Aldian behin, finantza-produktuaren aktiboen adierazle nagusien eta IGG ratingen bilakaera aztertuko da, eta eskusio-irizpideak betetzen direla egiaztatuko da.

h) DATUEN ITURRIAK ETA TRATAMENDUA

Errenta aldakorreko eta errenta finko pribatuko zuzeneko inbertsioaren kasuan, IGG datuen funtsezko hornitzailearen bidez lortutako informazio hau erabiltzen da:

- MSCI ESG Rating: MSCIk eskaintako jasangarritasunari buruzko ebaluazioa; horren bidez, jaulkitzailearentzat garrantzitsuenak diren jasangarritasunarekin lotutako alderdiak haztatzen dira. Ratinga AAA mailatik CCC mailara artekoa da.
- Sustainalytics Rank: enpresak duen pertzentila, Sustainalytics ESG Risk Rating deritzon IGG ratingaren arabera, industriari konparagarri dituenekin alderatuta.
- RobecoSAM Rank: enpresak duen pertzentila, S&P Global ESG Rank deritzon IGG ratingaren arabera.

Gainera, IGG datuen lehen mailako hornitzailearen bidez, eskuragarri daude jasangarritasun-adierazleei buruzko informazioa (datu gordinak) eta jasangarritasunari buruzko txostenak.

Errenta finko publikoko zuzeneko inbertsioetarako (zor subiranoko bonuak, nazioz gairikoa edo autonomia-erkidegokoak), iturri hauetako informazioa erabiltzen da:

- Social Progress Index. Herrialdeek beren herritarren gizarte- eta ingurumen-premiak zenbateraino asetzen dituzten neurtzen du, hiru alderdi nagusitan bildutako 54 adierazleren bidez; hona hemen adierazleok: oinarritzko giza beharrak, oinarritzko ongizatea eta aurrera egiteko aukerak. Social Progress Imperative elkarteak kalkulatu du, eta www.socialprogress.com helbidean kontsulta daiteke.
- SDG's Dashboard. Herrialdeek Nazio Batuen garapen jasangarriko 17 helburuekiko zer portaera duten neurtzen du. Hainbat erakundek kalkulatu dute (Garapen Iraunkorrerako Irtenbideen Sareak, NBErekin elkarlanean), eta www.sdgindex.com webgunean kontsulta daiteke.

- Demokrazia-indizea. *The Economist* egunkariko Inteligentzia Unitatearen sailkapen bat da, eta, horren bidez, 167 herrialdetako demokrazia-maila zehaztu nahi da. www.eiu.com webgunean kontsulta daiteke.

Azkenik, beste IKE batzuetan egindako inbertsioaren bidez IGG faktoreak integratzean, sozietate gestorearen integrazio-prozeduran eskuragarri dagoen informazio-txantiloia bidez jasotako informazioa erabiliko da.

Datuen kalitatea bermatzeko, hornitzaileak eskainitako estalduraren azterketa eta jarraipena egingo da.

Horrez gain, zorroaren IGG scoringaren jarraipena egiteko azterketa osagarrietan, hornitzaileak emandako datuak jaulkitzailearen, sektorearen edo herrialdearen proxyekin osatuko dira, barne-metodologiaren arabera, baldin eta aztertu beharreko tresnen inguruko daturik ez badago. Gainera, emandako datuek beste hornitzaile batzuen datuekiko duten desbiderapena aztertzen da, datuen kalitatea egiaztatzeko.

i) METODOEN ETA DATUEN MUGAK

Erabilitako informazio-iturriak askotarikoak direnez, oso handia da IGG datuen estaldura. Hala ere, gerta liteke aktibo batzuentzat notarik ez egotea. Kasu horretan, IGG jarraipeneko azterketetan, IGG datuen hornitzaileen informazioa barne-metodologia baten bidez osatzen da. Metodologia horrek proxyak erabiltzen ditu zuzeneko inbertsioan, eta gardentasun-ikuspegia (*look-through*) zeharkako inbertsioan. Prozedura horri esker lortzen den funtseko aktiboen datu-estaldurak ia ondare osoa hartzen du.

j) ARRETA EGOKIA

Arriskuen Gestioko eta Araudia Betearazteko Areak Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren Negozio Garapenaren Areako Banka Pertsonaleko funtzio teknikora bidaliko du IKE bakoitzaren gaineko informazioa jasotzen duen txantiloia, sozietate gestorearen integrazio-politikan eskuragarri dagoena, eta baita txantiloia horretan ondoren egindako aldaketak ere.

Akzioetarako eta errenta finko pribaturako IGG rating propioa hiru hilean behin berrikusiko da, eta zor publikoari buruzko IGG informazioa, berriz, urtean behin. Arriskuen Gestioko eta Araudia Betearazteko Areak egingo du berrikuspena, eta datu-base hori garaiz eta forman eguneratuta edukitzeaz arduratuko da.

Era berean, Arriskuen Gestioko eta Araudia Betearazteko Areak hiru hilean behin egiaztatuko du, Integrazio Politikaren pean dauden zorro guztiek metodologian ezarritako baldintzak betetzen ote dituzten.

Ez-betetzereen bat antzematen bada, Arriskuen Gestioko eta Araudia Betearazteko Areak Inbertsio Taldeari jakinaraziko dio, inbertsioen asteroko batzordearen bidez.

Irizpideren bat betetzen ez bada, IGG ratingaren beharakada baten ondorioz edo informazio-estaldura nahikorik ez dagoelako, Inbertsioen Departamentuak hilabeteko epea izango du (jakinarazpena jasotzen denetik) ez-betetzea konpontzeko.

k) INPLIKAZIO-POLITIKAK

Caja Laboral Gestión SGIIC SAK partaidetza-prozesuak ere egiten ditu, identifikatutako ingurumen- eta gizarte-arriskuen estaldura bermatzeko, IGG irizpideak zabaltzeko eta nazioarteko arau edo jokabide-kodeei atxikitzeko, besteak beste. Erakunde gestoreak inplikazio-politika bat du, lortu nahi diren ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak hobeto sustatzeko tresna osagarri gisa. Hauek arautzen ditu politika horrek:

- Erakunde gestorearen inplikazio-prozedura, inbertsioen xede diren konpainietako akziodun gisa.
- Inbertsioen xede diren sozietateen jarraipena, estrategiari, errendimendu finantzario eta ez-finantzarioari, kapital-egiturari, gobernu korporatiboari eta jardueren ingurumen- edo gizarte-inpaktuari dagokienez.
- Sozietateekiko elkarriketa aktiboa.
- Boto-eskubideen erabilera.
- Inplikazio-jardueren ondoriozko interes-gatazken kudeaketa.

Edonola ere, partaidetza-prozesu horiek kasu honetan egingo dira soilik: partaidetzapeko sozietatearen kapitalaren % 1ekoa edo handiagoa bada sozietate gestoreak kudeatutako inbertsio-funtsek kapitalean duten partaidetza.

Informazio gehiago sozietate gestorearen taldeko entitatearen web-orrialdean: www.laboralkutxa.eus

Azken eguneratze-data: 2023ko urtarrilaren 1a